

Ikasle etorri berriak gure euskal ikastetxe eleanitzetan: Hezkuntza Saileko ekimenak, ikasleen harrera eta hizkuntzaren lanketa



Uzt. 14 - Uzt. 16 2021

Kod. H17-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 14 - Uzt. 16 2021

Kokalekua

Elbira Zipitria zentroa

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

30 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea dauka (2168170022) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat.

Uda Ikastaro honetan, batetik, EAEko Hezkuntza Sailak ikasle etorri berriei arreta ematea helburu duten proiektuak izango ditugu hizpide (EUSLE ekimena, hizkuntza indartzeko irakasleentzako-HIPI-mintegiak, hizkuntza eta arloak uztartzeko gako metodologikoen inguruko prestakuntza ikastetxean...). Halaber, Ikasle etorri berriei eta familiei harrera egitearen garrantzia aztertuko da, baita ikastetxeko zeregin zehatzak ere. Horrez gain, hizkuntza indartzeko irakasleek eta tutore zein curriculumeko arlo eta ikasgaietako irakasleek egin ditzaketen hainbat jarduera eta gako aztertuko ditugu. Hala, ikasgelako esperientziak aurkeztuko ditugu eta azalpenetan, halaber, jarduerak, estrategiak eta materialak proposatuko dira, hala nola hasierako ebaluazioa egiteko tresnak, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eskuratzeko eta garatzeko baliabide didaktikoak eta arloetako lanketa bideratzeko hainbat gako.

Helburuak

Hezkuntza Sailaren ekimenen berri ematea (EUSLE ekimena, hizkuntza indartzeko irakasleentzako-HIPI- mintegiak...).

Ikasle etorri berriei eta familiei harrera egiteko gidalerroak ematea eta eskolatze-irizpideak zehaztea.

Hizkuntza indartzeko irakasleek eta tutore zein ikasgaietako irakasleek egin ditzaketen hainbat jarduera eta gako aztertzea.

Ikasgelako esperientziak aurkeztea eta baliabideak ematea.

Programa

2021-07-14

08:45 - 09:00	Documentación
09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Joserra Jimenez Gil
09:15 - 10:30	“EUSLE: Hezkuntza Sailak bultzatutako ekimena: "Ikasle etorri berrien esolatze-hizkuntza garatzeko bide berriak jorratzen” Biotza Piko Gabantxo
10:30 - 10:45	Atsedena
10:45 - 12:00	“HARRERA: ikasle etorri berrien eta familien inklusiorako abiapuntua” Joseba Ibarretxe Fernandez De Larrinoa
12:00 - 12:20	Atsedena
12:20 - 13:30	“Ikaslearen aurretiko ezagutzak eta integrazioa bideratzeko gakoak: hasierako ebaluazioa eta baliabidieak” Biotza Piko Gabantxo
13:30 - 14:00	Sintesia

2021-07-15

09:00 - 10:15	“Gela barruan. Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia” Joserra Jimenez Gil
10:15 - 10:30	Atsedena
10:30 - 11:45	“Eskolako hizkuntza eta edukiak garatzen.” Joserra Jimenez Gil
11:45 - 12:15	Atsedena
12:15 - 13:30	“ Esperientzien trukaketa: Mintza Lankidetzeta eta Eusle” Ana Martínez Fernández Noemí González Cascón Leire López-Gil Pecña
13:30 - 14:00	Sintesia

2021-07-16

09:00 - 10:15 "Unitateen egokitzapena kulturantzatasunaren ikuspegitik."

Biotza Piko Gabantxo

10:15 - 10:30 Atsedena

10:30 - 11:45 "Elkarreragina bultzatzeko estrategiak"

Biotza Piko Gabantxo

11:45 - 12:15 Atsedena


12:15 - 13:30 "Estrategiak eta ebaluazio hezigarria. "

Joserra Jimenez Gil

13:30 - 14:00 Itxiera

Joseba Ibarretxe Fernandez De Larrinoa

Zuzendaritza



Joserra Jimenez Gil

Berritzegune Nagusia

EDUCACIÓN Y FORMACIÓN Licenciado en filosofía y Letras (Sección Filología Inglesa). Universidad de Deusto -Bilbao Diplomado en Profesorado de Educación Básica (Especialidad de Lengua Inglesa) Universidad Pública del País Vasco EXPERIENCIA PROFESIONAL Sept 2019- Actualidad Berritzegune Nagusia/ Centro de Formación del Profesorado Responsable del tratamiento Integral de Lenguas 2018-2019 Jefe de Estudios en el centro escolar Zurbaran 2013 - 2018 Director en el centro escolar Lucas Rey-Matias Landaburu Tutor online (5 ediciones) en los cursos eTwinning organizados por el INTEF Tutor online (edición 2020) en el curso "El desarrollo de la función directiva organizado por el INTEF 2 Premios Europeos por proyectos eTwinning: " ICT, You and Me", "Intercultural Dialogue through Fairy Tales, Drama and Art" y uno nacional: EuroREcycling"

Irakasleak



Noemí González Cascón



Joseba Ibarretxe Fernandez De Larrinoa

FORMAZIOA Zientzia Fisikoetan lizentziatua, Astrofisika espezialitatean, Madrilgo Universidad Complutensean, 1990ean. C1 maila Euskara hizkuntzan eta B2 maila Ingeles hizkuntzan. LANBIDEA Bigarren Hezkuntzako irakaslea 1991tik aurrera EAEko irakaskuntza publikoan. Arrigorriaga BHiko Teknologia irakaslea 1997tik hona. Arrigorriaga BHiko Hizkuntza Normalizazioko arduradun teknikoa 2001etik 2008ra. Arrigorriaga BHiko ikasketa burua 2008tik 2012ra. Basauri-Galdakaoko Berritzeguneko Hizkuntza Normalizazioko aholkularia 2013tik 2016ra. Berritzegune Nagusiko Hizkuntzaren Normalizazioko Programaren arduraduna 2019tik gaurdaino.



Leire López-Gil Pecina



Ana Martínez Fernández

Ana Martínez Fernández HEZKUNTZA PEDAGOGI SISTEMIKOAREN PRINTZPIO TEORIKOEN IKASTAROA II | 2021KO EKAINEAN| PEDAGOGIA SISTEMIKOAREN ESKOLA (BILBO) PEDAGOGI SISTEMIKOAREN PRINTZPIO TEORIKOEN IKASTAROA I | 2020KO IRAILEAN| PEDAGOGIA SISTEMIKOAREN ESKOLA (BILBO) HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEI BURUZKO UNIBERTSITATE

MASTERRA| 2014KO MAIATZEAN| DEUSTUKO UNIBERTSITATEA (BILBAO) SOINU TEKNIKARIRAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA| 2008KO EKAINAN | CENTRO DE ESTUDIOS DE ANDALUCÍA (GRANADA) MUSIKAREN ZIENTZIA ETA HISTORIAN LIZENTZIATUA| 2007KO EKAINAN | GRANADAKO UNIBERTSITATEA (GRANADA) IRAKASLEA-MUSIKA HEZIKETA ESPEZIALITATEA UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALA| 2005KO MARTXOAN | EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (BILBO) LAN ESPERIENTZIA Irakaslea Euskal Herriko Eskolako Sare Publikoan| 2009ko azarotik- gaur egunerarte. • Musika, tutore eta euskara indartzeko irakaslea. Gaur egun EUSLE ekimenaren irakaslea Tomas Camacho Eskola Publikoan (Bilbo). Eszenatoki Teknikaria | Cedison Sonido e Iluminación (Sevilla)| 2008ko abuztutik-abendurarte. • “El Barrio” taldearen birako eszenatoki teknikaria. Eszenatoki Teknikaria | Sinestar Sonido e Iluminación (Granada) | 2008ko uztailean. • “Freek Fest” musika jaialdiko soinu teknikaria Puerto de Santa Marían (Cádiz). SARIAK “Ipar-Hego Bilbao. Eskola Solidarioa” Saria. Bilboko Udaletxea, 2017. OSAGARRIZKO FORMAKUNTZA • INGELESA C1, Certificate In Advanced English (CAE) British Council Bilbao (2017). • EGA (Euskararen Gaitasun Agiria) Euskal Herriko Unibertsitatea (2005). • EUSKARA B1 (Tarteko maila) Hizkuntz Eskola Ofiziala (2004). • INGELESA B1 (Tarteko maila) Hizkuntz Eskola Ofiziala (2000). • B taldeko gidabaimena.



Biotza Piko Gabantxo

Berritzegune Nagusia, Aholkularia

Berritzegune Nagusiko Lehen Hezkuntzako aholkularia. Eusle Ekimenaren Koordinatzailea eta arduraduna. Hezkuntza Sailak bultzatutako Eusko, Eskola inklusiboaren esparruan sartu berri diren ikasleei erantzuteko programa. Azken urteetan ,Gasteizko Berritzegunean, Hizkuntza mintegikidea, Bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan formatzailea, Kulturartekotasuna gaiaren erreferentea. Hizkuntza indartze irakasleen, HIPIen, formatzailea. Berritzeguneak sortu baino lehen, aurreko Laguntza Zerbitzuetan Euskara eta Hizkuntza Normalkuntzako teknikaria. Kanpoko hezitzailea, Nafarroako Euskararen Irakaskuntzarako Baliabideen Zentroan (Eibz) eta Nafarroako Laguntza Zerbitzuetan, euskarazko eredua ezartzeko: curriculum eta metodologia. Argitalpenak: Piko Biotza (2020) “Eskola inklusiboa: atzerriar jatorriko ikasleak: EUSLE EKIMENA eskolako komunikazio-hizkuntzaren eskuratze-prozesua bizkortzeko eta hobetzeko proiektua”. HERMES 65 Zb. 44-51 or. Anaya-Aritza argitaletxean:

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2021-03-08 ARTE	2021-07-14 ARTE
Prest_gara H17-21	0 EUR	-
OROKORRA	-	105,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	89,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	74,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	89,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	89,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	89,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2021-03-08 ARTE	2021-07-14 ARTE
OROKORRA	-	105,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	-	89,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	-	74,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	-	89,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	-	89,00 EUR
ELKAR txarteldunak	-	89,00 EUR

Kokalekua

Elbira Zipitria zentroa

Ondarreta pasalekua, 18. 20018 Donostia

Gipuzkoa